

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

38 zk.

2009





KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Azala eta marrazkiak: Juan Azpeitia, 2009. Serie “8 + 3”.

© EIZIE

© Karlos Linazasorok, bere testuena.

© Itzultzaiileek, beren testuena.

© Juan Azpeitiak, marrazkiena.

ISSN: 1132-2152

Legezko gordailua: SS-1152/01

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Karlos del Olmo

Zuzendariordea:
Maite Imaz

Aholku taldea:
Gotzon Egia
Juan Garzia
Josu Barambones



Helbidea:
Zemoria, 25

20013 DONOSTIA

Tel.: 943 27 71 11
Fax: 943 27 72 88

senez@eizie.org
<http://www.eizie.org>

gurkibidea

Aurkezpena / Presentación / Présentation / Foreword	5
Antolatzileen hitzak	7
Karlos Linazasororen hamaika kontu	
KARLOS LINAZASORO	11
Once relatos breves de Karlos Linazasoro	
IÑAKI FRIERA, GERARDO MARKULETA, KARLOS LINAZASORO	35
Onze nouvelles de Karlos Linazasoro	
NAHIA ZUBELDIA	49
Eleven Short Stories by Karlos Linazasoro	
SARAH TURTLE	63
Hamaika kontu, hiru itzulgibide	
MANU LÓPEZ GASENI	79
Bidaia bat Itzultopiara	
ITZIAR OTEGI	83
Itzultzen ez dakien honek	
KARLOS LINAZASORO	89

Aurkezpena

Senez aldizkariaren zenbaki berezia duzu hau, irakurle, eta monografikoa; euskal literaturaren lagin bat hainbat hizkuntzatan biltzen duen alea, EIZIEk 2009ko udazkenean antolaturiko *Idazlea itzultzaileen lantegian* saioaren fruitu. Antolatzaleen hitzen ondoren, Karlos Linazasororen hamaiaka kontu aurkituko dituzu hemen, lau hizkuntzatan. Autoreak lantegiaz idatzitako hitzak ere ekarri ditugu hona, baita lantegiko saioak gidatu zitzuten Manu López Gaseni eta Itziar Otegiren narrazioak ere, saio aberasgarri horietan landurikoa kontatu baitigute.

Presentación

Te presentamos un nuevo número de la revista *Senez*, fruto de la sexta edición de *El escritor en el taller de los traductores*, organizada por la asociación EIZIE en septiembre de 2009, y que en esta ocasión contó con Karlos Linazasoro como autor invitado. Tras una introducción de los organizadores, que da cuenta de dicho taller, este número te ofrece una muestra de la obra del autor: once cuentos breves en cuatro lenguas (euskería, castellano, francés e inglés). Hemos incluido también un breve texto del propio K. Linazasoro sobre su intensiva experiencia entre traductores y, para terminar, Manu López Gaseni e Itziar Otegi, dinamizadores del taller, nos relatan el desarrollo de las sesiones del grupo.

Présentation

L’association EIZIE vous présente un nouveau numéro de la revue *Senez*, fruit de la sixième édition de *L’écrivain dans l’atelier des traducteurs*, organisée par l’association en septembre 2009 et dont l’auteur invité était Karlos Linazasoro. Après une introduction des organisateurs présentant l’atelier, ce numéro vous propose un échantillon de l’œuvre de l’auteur : onze nouvelles brèves, en quatre langues (euskarra, espagnol, français et anglais). Nous avons par ailleurs inclus un texte bref de K. Linazasoro racontant son expérience intense parmi les traducteurs et, enfin, Manu López Gaseni et Itziar Otegi, animateurs de l’atelier, vous racontent le déroulement des différentes sessions.

Foreword

We have great pleasure in presenting a fresh issue of the journal *Senez*, covering the sixth edition of *The Writer in the Translators’ Workshop*, organised by EIZIE (Association of Translators, Correctors and Interpreters in the Basque Language) in September 2009. Karlos Linazasoro was this year’s guest writer. Following a report on the workshop by the organisers, this issue goes on to offer a sample of the author’s work: eleven short stories in four languages (in the original Basque, plus the translations of them into Spanish, French and English). We have also included a short piece by Karlos Linazasoro himself reflecting on his intense experience among the translators. Finally, Manu Lopez Gaseni and Itziar Otegi, the leaders of the workshop, report on how the group sessions developed.

Antolatzaileen hitzak

EIZIEk urtero antolatu du lantegi hau, 2004. urteaz geroztik, euskaratik beste hizkuntzetarako literatur itzulpengintza sustatzeko ahaleginean. Idazlea eta itzultzailak elkarrekin lanean jartzen ditu lantegi honek, autorearen testu jakin bat lanerako legin hartuta. Aurreko bost edizioetan, Euskadi Sariaren azken irabazlea izan da lantegian gonbidatu: Pello Lizarralde, Jokin Muñoz, Harkaitz Cano, Iban Zaldua eta Xabier Montoya, hurrenez hurren.

Irizpide berari eutsi izanez gero, aurten ere Jokin Muñoz izango genuen autore gonbidatu. Kontuan izanik lantegiak bost urteko ibilbidea baduela, eskema berari jarraiki, berrikuntzaren bat saiatzeko unea iritsi zela pentsatu genuen antolatzaileok, betiere lantegiaren funtsezko helburuei eutsiz. Hala, 2009ko edizioa saiakera bat izanda, etorkizunean lantegiak bide berriren bat har ote dezakeen ikusteko. Edizio honek, beraz, zenbait berrikuntza izan ditu planteamenduan. Hasteko, antolatzaileok hautatu ditugu bai autorea, bai beronen testua. Bestalde, itzulpen prozesua aztertu eta autorearen eta itzultzailaren artean izaten diren eztabaidea mamitsuei etekin gehixeago ateratzeko asmoz, gidariaren figura —nolabait izendatzearren— sartzea pentsatu genuen.

Karlos Linazasororen *Diotenez* (Erein, 2007) narrazio laburrez osatuta dago, eta laburtasun horrek ipuin bakoitza osotasun modura hartzeko aukera ematen du. Trinkoak dira ipuinok, eta aberatsak eta askotarikoak, literatur efektuei dagokienez. Ezauagarri horiek gogoan, lantegirako material bikaina iritzi genion. Nolabait mugatu behar, ordea, eta hamaika ipuin hautatu geni-

tuen (hitz-jokoak bultzatuta): “Atzeraeraginezkotasuna”, “Izen-pea”, “Erietxean: Gurutzegrama”, “Erietxean: Lagun galdutuak”, “Auzoparanoia”, “Non da”, “Goiz batzueta”, “Iragazi-gizona”, “Laidoaren gezirik gordinena”, “RIP” eta “Antropofobia”.

Bestalde, lantegiak hasieratik izan duen helburua —euskal literatura atzerriratzen laguntzea— bazter utzi gabe, autoitzulpenaren alorrari heltzea interesgarri izan zitekeela pentsatu genuen, eta lantegia bi saiotan banatzea erabaki: gaztelaniari eskainia bata, eta inglesari eta frantsesari eskainia bestea. Erdarak zehazteko orduan lantegia gidatuko zuten itzultzailleen hiru hizkuntzak ezagunak iza-tea bilatu genuen. Hirugarren saio bat ere izan zen: goizeko zatian egilea, lau itzultzaillek eta bi gidariak aurreko saioetako jardueren ondorioak ateratzeko bildu ziren. Arratsaldeko partean, berriz, ondorio horiek jendaurrean eskaini eta zenbait testuren irakurraldia egin zen, ohi bezala.

KARLOS LINAZASOROREN HAMAIIKA KONTU

IDAZLEA ITZULTZAILEEN LANTEGIAN - 2009


GASTEIZEN, 2009KO IRAILAREN 22TIK 24RA

Karlos Linazasorok eta lau itzultzalek Diotenez liburuko hamaika kontakizun izango dituzte mintzagai, bost bertsiotan (hiru gaztelaniaz, eta bana ingeleset eta frantseset).

Itzulpenak:

- Karlos Linazasoro (gaztelania)
- Iñaki Friera (gaztelania)
- Gerardo Markuleta (gaztelania)
- Sarah Turtle (ingelesa)
- Nahia Zubeldia (frantsesa)

Babesie:



Laguntzailea:

Anboto Feru
Altundia
Diputación
Foral de Álava
www.alava.net

JENDAURREKO EKITALDIA


2009ko irailaren 24an, arrateko 19:00etan
Ignacio Aldecoa Kultura Etxea (Gasteiz)


Mintegiaren azken egunean, parte hartzaileek esperientziaren berri emango dute mahai-inguru batean. Ondoren, idazlearen zenbait testu bost bertsiotan entzuleko parada izango dugu.

Antolatzaile:



Karlos Linazasororen
HAMAIKA KONTU





ATZERAERAGINEZKOTASUNAZ

Hilezkortasuna lortu duen lagun bat daukat. Horixe erdiestea izan du bizitzan helburu bakar, behinena. Ez diot inbibiarik. Bejondeiola. Nik, guztiz kontrako bidetik jo dut: atzeraeraginezko izan nahi nuen, eta, lan eta neke askoren ondoren, atzeraeraginezkotasuna lortu dut. Neronek idazten ditut orain neure iragana, zorion esanezinez ziprztintzen ditut haurtzaroko eta gaztaroko egunak oro, neure hilak ditut berpizten, ogibiderik ederrenaz janzten dut neure burua... Ahalmena (dohaina?) atzoko eguna arte luzatzen da, beti da bezpera, oraina du muga edo erbeste, eta ukiezina izanagatik ere, hain dago hurbil atzoko egunaren oroimena eta lurrina... Nire lagunak esaten dit, maltzurki, egunen batean ni ere hil egingo naizela, eta nik erantzuten diot, malezia apurño batez, ez dagoela ezer munduan zorion betean hiltzea bezalakorik, eta ea zer egin behar duen berak bizitza eramanezina, zentzugabea eta doilorra bihurtzen zaionean. Ea orduan, bai, zer arraio egin behar duen.

le voile de force capio faire semblables
connistances quand le Regis servie
es obligacion des Comme au premis
forces belligueurs des Ro au fait Recette
s midy presay me antine aucale
av benen lig obrie tey Hey meune
ewans en la ville de farcolla Seynes au
iste avec les deux Comme la habitat
lone Regne le prochain general du sieur
uaro le Recognoit le nous Jean pierre
aguier greffie la Commission Regis
obligé le presentement conveus le
iste au Bureau de farcolla pndumini
a Recer j:

Blagierre J.

Soleil que represente a
Expedition leysse d'
appelle poudreux



IZENPEA

Artzain zaharrak ez zekien ez irakurtzen ez idazten. Notarioak idazluma eskuratu zionean, dokumentua izenpe zezan, leihotik begira gelditu zen une llabur batez. Gero, bi hatzez, leun-leun, idazluma jetzi, eta artalde zoragarri bat marraztu zuen.



ERIETXEAN: GURUTZEGRAMA

Norbait hil zain, norbait jaio zain nagoenean, gurutzegramak egiten ditut. Antsietatea baretzen didate, buruko lokarri astunak askatzen. Operazio-gela ondoan esertzen naiz, zumezko aulkitxo batean, eta sabaira begiratzen dut, hitz galduaren bila. Color, once letras. Umeari bihotza aldatu behar diote, hondatu egin zaio esko-lan zegoela, jolastokiko basoan. Aborrachado, opalescente, encardinado. Sabaiari begiratzen diot, bai, baina umearen arteriak ditut gogoan, haren sistole-diastole abaldu kardamuak joak. Gurutzegramen erregea naiz. Iridacente, azulamiento, agarbanzado. Lau ordura doa. Euren tokietan atsedentzen dira hizkiak, eurez, hutsune gutti gelditzen da ja betetzean. Halako batean, oin-hotsak sentitzen ditut barruan, hitz epel batzuen hurbiltasuna. Badatoz. Bukatu dute. Cromometría, amarillento, lactescente. Ez dut hitza asmatzen, inoiz ez dut hitz bakar bat ere asmatu, baina entzuten dut ordea bihotz berria, punpaka zalapartaka, operazio-gela lehertu nahi balu bezala, basazaldi baten bozkarioz. Eta nik orain badakit bihotz berriaren kolore hamaika letraduna, hamaika biziduna.



ERIETXEAN: LAGUN GALDUTUAK

Dagoeneko buruz ezagutzen ditut erietxeko pasabide, solairu, gela eta gainerakoak oro. Txoko guztiak. Horregatik, galtzen naizenean, ez naiz betiko galtzen, inolaz ere. Betiko galtzeko, ondo-ondo ezagutu behar dira bazterrak, eta hala ere lanak izaten dira betiko galtzeko. Ezagutzen ditut nik betiko galdu ziren eriak, bi edo hiru, akaso laugarren bat ere bai, erietxeko hormen artean. Ez zituzten sekula gehiago aurkitu, bila eta bila ibili arren. Bainanik badakit non galdu ziren, ez baitziren galdu edo egonkortu edo ezkutatu inon, *galdutu* baino. Hori zer den? Ikusezintasun halako bat lortzea, erietxean soilik lor litekeen status bat, biziaren eta heriotzaren erdibidean dagoena. Horregatik, neure buruarekin marmarmar noanean, edo nabilenean, erietxeko pasabide luze antzuetan, pentsa liteke, amets liteke lagun galduetuekin hizketan ari naizela, kontu kontari, eta ez neure buruarekin, bakarrizketa ero asaldagarrian.



AUZOPARANOIA

Auzoparanoia nozitzen dut, bestearena. Nola den? Beti norbait daramat aurretik. Eta jarraitu egiten nau. Aurretik jarraitzen nau, eta orduan paranoia ez da nirea, bestearena baizik. Auzoparanoia ez da, neurri batean behintzat, asaldagarria, ez du izurik sortzen: beti daukazu arerioa begien bistan. Alde horretatik, ez dago ezusterik, ekimena nire esku dago beti. Baino inoiz ez da jakiten. Gainera, zugandik distantzia zuhur batera mantentzen bada ere, intimitatea galtzen da, barne-oreka. Aurretik daramadanez, neu naiz jarraitzailea, eta hobe dut isilik egon. Jendeak ez du ulertzen zergatik alditxartzen naizen, zergatik bat-batean hasten naizen arrazoi-rik gabeko irain gordinka. Aurretik daramazuna, ez doa zurekin; izatez gerotan, alderantziz litzateke. Eta saiatu naiz hura atzematen, eta orduan bestea izan da paranoikoa. Ez dut, dena den, inoiz harrapatzerik lortu: lerro beraren gainean lerratzen dira gure bizitzak, halako distantzia garaiezin eta fatidiko batez.



1800

A.M.

NON DA

Eta bere eskuak nire ilean suziri ziren edo elur, aurreranzko lera, kolonia-usainetan labaintzen zirenak begietako kaira, atseden limuria hartzeko, musu bat gerorainokoa. Amaren eskuak, diot, kirru eta itsaso goizero, ihintzezko lorratzak kenduz, burukoaren hodei-arantzak. Eta zer bidaia dantzatzen zuten nire esne-sustaren beila ttikian, zer jolastordu behar zuten hain urdina eta hain ederra, nora ginen hiltzera une haiiek denak, lotirik leialenak. Non dira esku haien irribarreak nire ileen kaiola irekiz, txoriak aireratuz, eta xingolak garisailak piratontziak ferekak urkiak urretxindorrak, hora guztia nire zentzutasunarekin galdu zena, non da.



GOIZ BATZUETAN

Goiz batzuetan zangalatrau bat naiz, ni neu osorik hankartean zer edo zer harrapatzen duen pintza, kirrika, grapagailua. Ikusten dut auzoa, eta bizkarrera lotzen natzaio izterrez, saihets aldean; topatzen dut haritz tantaia, eta tximino baten abileziaz hartzen dut haren enborra; jotzen dut begiz zerbait zutikakoa (farola, postontzi, gizaki edo udaltzain, bide-seinale), eta, ezinbestean, gogoz bestera (ulertuko da), hankez atzematen dut, indarrez lerden baina itxura gaiztoan, min egiten diodan arte itxura gaiztoz eta indartsu, eta egunen batean jakina disgusturen bat hartu beharrean nago nire jaidura bihozgabe, kontrolaezin honen kontura.



IRAGAZI-GIZONA

Iragazi-gizon bat naiz. Urrea aurkitzen diet pentsamenduei, hitzei, ideiei, den orori. Kutsadura kentzen diot aireari, birusa gaixotasunari, gezurra egiari. Nire poroetatik barneratzen den guztia (soinu bat, irribarre galdu bat, begietako polena) garbi irteten da, puru eta birjina, errugabe. Hondakinak eta zikina, gezurra eta akaso gorrotoa, atzipea eta tirania, giltzurrunetatik eta biriketatik kanporatzen dut, karbono dioxidoarekin batera. Arnasaldi bakoitzean mundu zati ñimiño bat garbitzen dut, molekula eskas batzuk baino ez ausaz, baina nire inguruoa oihan garbi da oro, poesia eta paradiesu, hastapeneko harmonia. Nekerik ere ez dut nozitzen ja iragazte-prozesuan, berez-berez egiten dut, estuasun edo itolarri edo espanturik gabe, arnasa hartzearekin batera. Eta nire ondoan pozik bizi da jendea, halako bake garbi bat sumatzen baitu, egiazkoia, paradiesu galdu genuenekoaren aurretikoa, Jainko argiz bataiatua, ezin esan halako pozkidazkoa.



LAIDOAREN GEZIRIK GORDINENA

Dena saiheska egiten dut: ibili, hitz egin, maitatu, lo, bizi. Gauza hauek ez dira noski geurez erabakitzentz, begien kolorea geurez era-bakitzentz ez dugun bezala. Munduan kabitu ezin halako bat dago honen guztiaren oinarrian, hori badakit, airearen harresiek sortzen zidaten itolarri kosmiko bat. Ezin dut parez pare, buruz buru, ahus-pez edo buruz gora bizi: debekatuak ditut izaera horiek. SAIHESKA begiratzen diot lagunik minenari, eta etsai bat dirudi; saiheska dut hitz egiten, eta haserrearen zantzuak sumatzen dizkidate; saiheska ibiltzen ditut kaleak, eta jendeak iraingarritzat jotzen du nire portaera; saiheska jotzen dut larraua, eta ez dute maitasunik ikusten nire maite-sukarrean. Baino, saiheska begiratu arren, nik bekoz beko eta osorik ikusten dut mundua, ez soslaiz edo zeharrez, eta badakit zer den laidoaren gezirik gordinena.



RIP

Aitaren errautsak dauzkat esku artean. Kutxa itsusi bat. Eta ez dakit zer egin aitaren errautsekin. Gorantz bota nahi nituzke, baina haizea lo dago; beherantz zabaldu nahi nituzke, baina oinutsik nagoela konturatu naiz. Baso ttiki gorri batean nago, eta haritzetan burkoak ikusten ditut, eta kuku batek zirina egin dit, eta itsasoa ere entzuten dut hain urrundik. Poema bat idatzi dut une hunkigarrri honetan irakurtzeko, zortziko txiki bat kopiatu diot bertsolari zahar bati, Atañori, Polipasori, niri betidanik Machado gustatu zaidan arren, Antonio Machado, eta espainolez. Spainolez, ordea. Eta aitak goian bego esaten zuen beti-beti, eta egun handia arte, edo lagun nauzu saminean, eta Jainkoa lagun eta ez ondo bidez. Eta fabrikan ikasi zuen esaten finis coronat opus, heriok bukatzen du obra, heriotzan amaitzen da bidaia, eta lurrik berdinduko gaitu guztiok. Azkenean, lurrik. Patroia eta gu, denak. Eta horixe idatzi zuen aitak hizki berde larriz engomadorako horma sendoan: Finis Coronat Opus. Enbor baten gainean eseri naiz. Kandela usaina dago, arrain abisalek ehuntzen dute argisla. Aitari begiratzen diot, eta aitak ez dit basoa ikusten uzten. Haize zirrinta bat balego sikiera. Edo aitak horrela begiratuko ez balit, hain derrotaturik. Bainak ikusia dago, gaur ez da eguna. Etorriko naiz beste batean, beste behin, eguraldiak laguntzen duenean-edo, Jauna lagun, finis coronat opus egitera, edo, aitak esaten zuen bezala, hasitako lana bukatzera.




ANTROPOFOBIA

Antropofobotzat daukat ene burua. Ez zait giza-haragia gustatzen. Probatu dut, jakina, eta ez zait gustatzen. Ez zaporea ez ehundura ez ezer. Orain modan jarri da antropofagia eta ia-ia derrigorrezkoa da giza-haragia gustuko izatea, denik eta haragirik bikainenera iruditzea. Gizateria moden akuilupean mugitzen da, mezu manipulatzailez menperatua. Hasieran, behi-haragia izan zen; gero, arrain urdina; hurrena, dieta begetarianoa, naturismoa, jaki ekologikoak. Orain, lurrez, airez eta itsasoz, antropofagia iritsi da: ezerk ez du giza-haragiaren proteina, bitamina edo kaloriarik. Gainera, fintasun seinale da, goi mailaren eta modernotasunaren ikur-erakusle. Aurreiritzi etikoak alderantziz irakurtzen dira orain: inmorala da zeure senitarteko, lagun edo etsaien haragia ez jatea, eurek zuregatik *horixe* egingo zutenean. Baino nik ezin dut espektakulua jasan: Enbalaje Saileko arduraduna, atzo bihotzkoak jota hil zena, nire lankideek jan zuten oso-osorik, putreak balira bezala, lan-jantziak odolez blaituak, mauka-mauka, hankak eta izterrak, barne-muin samur goxoak, falangeak ondo-ondo zurrupatuz, hilotz gizajoa, atzo arte malbabisko goxokiak oparitzen zizkigun gizon puska ezer ez da ja, femur huts, kubito eta erradio huts, burezur soil, gizakitik dena aprobetxatzen da, zerritik bezala, hori esaten zuten, eta nola gordetzen zuten koitaduaren odola txorizoak eta odolkiak egiteko, nola irentsi duten gorputua amen eta jesus batean hilotzaren beraren ohoretan, tira, mutilak, ez dadila Germán gaixoaren arrastorik ere gelditu, izan gaitezen eskuzabalak eta bihotz onekoak haren bizitzarekin eta haren heriotzarekin.

Atzo Guzmán, eta herenegun nire lehengusu bat, hondartzan itota hil zena; eta orain hiru egun, kamioi batek harrapatu zuen agure zarpail bat; edota harategietako ilaretan aldaka-zati bat edo burmuinak edo barrabilak lortzearren izaten dituzten iskanbilak; eta, batez ere, gaztetxoenen gorpuak, haragirik fresko eta xamurrena, edo haur jaio berrien gorpuzñoak, etxeko barbakoa ketsuetan erretzen dituztenak, udako arrats gorrietai, jaki Jainkotiar bat balitz bezala, inoizko delicatessenik zoragarriena.

Once relatos breves de Karlos Linazasoro



Traducción: Iñaki Friera,
Gerardo Markuleta, Karlos Linazasoro



SOBRE LA RETROACTIVIDAD

Tengo un amigo que ha logrado la inmortalidad. Conseguirlo ha sido su único y primordial objetivo. No le tengo envidia. Que le aproveche. Yo he tomado justo el camino inverso: quería ser retroactivo, y, tras mucho esfuerzo y sacrificio, he logrado la retroactividad. Ahora escribo yo mi pasado, salpico de una felicidad inefable todos mis días de la infancia y de la juventud, visto mi ser del oficio más bello... La facultad (*¿la virtud?*) se prolonga hasta el día de ayer, siempre es víspera, el presente es su frontera o destierro, y aunque sea intocable, está tan cercano el recuerdo y el perfume del día de ayer... Mi amigo me dice, pérfidamente, que yo también moriré algún día, y yo le respondo, con una pizca de malicia, que no hay nada en el mundo como morirse pleno de felicidad, y a ver qué es lo que va a hacer él cuando la vida se le vuelva insoportable, absurda y cruel. A ver entonces qué rayos va a hacer.

Traducción del autor



FIRMA

El viejo pastor no sabía leer ni escribir. Cuando el notario le alcanzó la pluma para la firma del documento, se quedó mirando por la ventana un breve instante. Luego, con dos dedos, muy suavemente, ordeñó la pluma y dibujó un precioso rebaño de ovejas.


Traducción de Gerardo Markuleta



EN EL HOSPITAL: CRUCIGRAMA

Mientras espero a que alguien muera, a que alguien nazca, hago crucigramas. Me calman la ansiedad, liberan las fastidiosas ataduras de mi mente. Me siento en una sillita de mimbre junto a la sala de operaciones, y miro al techo en busca de la palabra perdida. *Color, once letras.* Le van a cambiar de corazón al crío, se le ha estropeado cuando estaba en la escuela, en el bosque del patio de recreo. *Aborrachado, opalescente, incardinado.* Estoy mirando al techo, es cierto, pero mi mente la ocupan las arterias del niño, sus sistoles y diástoles más bien abatidos, afectados por la carcoma. Soy el rey de los crucigramas. *Iridiscente, azulamiento, agarbanzado.* Ya va para cuatro horas. Las letras van acomodándose en sus lugares, por sí mismas, ya quedan pocos espacios por llenar. De pronto siento ruido de pasos dentro, la cercanía de unas tibias palabras. Ya vienen. Han terminado. *Cronometría, amarillento, lactesciente.* No doy con la palabra, nunca he acertado ni una sola, pero en cambio oigo latir el nuevo corazón, bombeando con estrépito, como si quisiera hacer estallar la sala de operaciones, con el júbilo de un caballo salvaje. Y yo ahora sé cuál es el color de ese nuevo corazón, un color de once letras para un corazón de siete vidas.

Traducción de Gerardo Markuleta



EN EL HOSPITAL: LOS AMIGOS PERPERDIDOS

A estas alturas me conozco de memoria los pasillos, plantas, habitaciones y demás dependencias del hospital. Todos sus rincones. Por ello, cuando me pierdo, no me pierdo para siempre, evidentemente. Para perderse para siempre, hay que conocer a la perfección todos los recovecos, y aun así es muy difícil perderse para siempre. Conozco enfermos que se perdieron para siempre, dos o tres, acaso hasta cuatro, entre las paredes del hospital. No los encontraron nunca jamás, aunque los buscaron con ahínco. Pero yo ya sé dónde se per perdieron, pues no se perdieron ni se establecieron o escondieron en ningún lugar, sino que se *per perdieron*. ¿Que qué significa eso? Lograr una suerte de invisibilidad, un status que sólo se puede lograr en el hospital, que se sitúa a medio camino entre la vida y la muerte. Por ello, cuando voy rumiando conmigo mismo a través de los largos y estériles pasillos del hospital, se puede pensar, se puede soñar que estoy hablando con mis amigos per perdidos, dándole al palique, y no conmigo mismo, en un loco monólogo alarmante.

Traducción del autor



AJENOPARANOIA

Sufro ajenoparanoia, la del otro. ¿Que qué significa? Siempre llevo a alguien por delante. Y me persigue. Me persigue por delante, y entonces la paranoia no es mía, es de él. La ajenoparanoia no es, en cierta medida, preocupante, no atemoriza: siempre tienes delante al enemigo. Por eso, no hay lugar a la sorpresa, en todo momento llevo la iniciativa. Pero uno no puede fiarse siempre. Además, aunque se mantenga a una distancia prudente de ti, se pierde intimidad, equilibrio interno. Como lo llevo delante, soy yo quien le persigue, y es mejor que guarde silencio. Nadie entiende mi enfado, nadie entiende por qué de repente, sin motivo aparente, empiezo a insultar de forma grosera. Ese que llevas por delante, no va contigo; en todo caso, sería al revés. Y he intentado alcanzarle, y entonces es él el paranoico. En cualquier caso, nunca he conseguido atraparlo: nuestras vidas se alinean sobre el mismo fondo, a una distancia insuperable, fatídica.

Traducción de Iñaki Friera



¿DÓNDE ESTÁ?

Eran cohete sus manos en mi pelo; eran nieve, trineos que avanzaban deslizándose en aromas de colonia hacia el puerto de mis ojos. Eran tierno descanso, eran beso, un hasta luego. Manos de madre, digo, cerro y mar cada mañana, borrando estelas de rocío, nubes y espinas de almohada. Y qué viaje bailaban durante los cortos periodos de vigilia en que me amamantaba, qué recreo necesitaban tan azul y tan hermoso, adónde fuimos a morir todos aquellos momentos, los más fieles durmientes. Dónde están las sonrisas de aquellas manos que abrían la jaula de mis cabellos dejando que volaran los pájaros, dónde están las cintas trigales barcos de piratas caricias abedules ruiseñores, todo aquello que se perdió con el sentido común, dónde está.

Traducción de Iñaki Friera



ALGUNAS MAÑANAS

Algunas mañanas soy un encabalgamiento, una pinza, un crujido, una grapadora que agarra cualquier cosa entre las piernas. Veo el barrio, y me aferro a su espalda con mis muslos, junto a las costillas; encuentro el roble erguido, y tomo su tronco con la habilidad de un mono; echo el ojo a algo vertical (una farola, un buzón de correos, un ser humano o policía municipal, una señal de tráfico), e, indefectiblemente, en contra de mi voluntad (como es obvio), lo atrapo con las piernas, con suavidad pero de malas maneras, de tan malas y con tanta fuerza que hasta le hago daño, y algún día, claro, me llevaré un disgusto a cuenta de esta inclinación cruel e incontrolable.

Traducción del autor



HOMBRE FILTRO

Soy un hombre filtro. Encuentro oro en pensamientos, palabras, ideas, en todo cuanto existe. Retiro del aire la contaminación, de la enfermedad el virus, y de la verdad, la mentira. Todo aquello que penetra por mis poros (un sonido, una sonrisa perdida, el polen de los ojos) sale limpio, puro y virgen, inocente. Los desechos y la porquería, la mentira y quizá el odio, el engaño y la tiranía, los expulso a través de los riñones y los pulmones, junto con el dióxido de carbono. En cada respiración limpia una minúscula parte del mundo, puede ser que sólo unas pocas moléculas, pero a mi alrededor todo es selva virgen, poesía y paraíso, armonía ancestral. Ya casi ni siquiera siento cansancio durante el proceso de filtrado, lo hago sin forzar nada en absoluto, sin angustia ni agobio ni aspavientos, al tiempo que respiro. Y a mi lado la gente vive feliz, porque percibe en su entorno una especie de paz pura, verdadera, de la época en que aún no habíamos perdido el paraíso, bautizada por la luz divina, de una alegría inenarrable.

Traducción de Gerardo Markuleta



EL MÁS CRUEL DARDO DE LA AFRENTE

Todo lo hago de costado: camino, hablo, amo, duermo, vivo de costado. Estas son cosas que, claro está, no decidimos por nosotros mismos, igual que tampoco decidimos acerca del color de nuestros ojos. Claro que soy consciente de que en el fondo de todo esto hay una incapacidad para adaptarse al mundo, una asfixia cósmica que me producen las paredes del aire. No puedo vivir cara a cara, frente a frente, boca arriba o boca abajo: son formas de ser que me están vedadas. A mi mejor amigo, lo miro de reojo y parece un enemigo; hablo de costado, y la gente detecta en mí signos de enojo; recorro las calles de lado, y a la gente le resulta insultante mi comportamiento; hago el amor de costado, y no ven amor en mi apasionamiento. Sin embargo, aunque mire de reojo, yo veo el mundo de frente y en su plenitud, no de perfil o de través, y sé bien cuál es el más cruel dardo de la afrente.


Traducción de Gerardo Markuleta



RIP

Tengo las cenizas de mi padre en las manos. Una caja fea. Y no sé qué hacer con ellas. Quisiera lanzarlas al aire, pero el viento está dormido; quisiera esparcirlas hacia abajo, pero me he dado cuenta de que estoy descalzo. Estoy en un pequeño bosque otoñal, y veo almoradillas en los robles, y un cuco me ha cagado, y escucho el mar allá en la distancia. He escrito un poema para leerlo en este momento tan emotivo, he copiado una octavilla a un viejo versolari, a Ataño, a Polipaso, a pesar de que yo siempre he admirado a Machado, a Antonio Machado, y en español. En español, sí. Y mi padre siempre decía *goian bego, y egun handia arte, o lagun nauzu saminean, y Jainkoa lagun*, y no *ondo bidez*. Y en la fábrica aprendió a decir finis coronat opus, la muerte corona la obra, la muerte es el final de nuestro viaje, y la tierra nos hará a todos iguales. Al final, la tierra. Para el patrón y para nosotros, para todos. Y eso mismo escribió mi padre con grandes letras verdes en la firme pared de la engomadora: Finis Coronat Opus. Me he sentado sobre un tronco. Huele a vela, a reflejo de luz tejido por peces abisales. Miro a mi padre, y no me deja ver el bosque. Si al menos corriera una pizca de viento. O si mi padre no me mirara de esa forma, tan derrotado. Pero está visto que hoy no es el día. Volveré otro día, en otra ocasión, cuando el tiempo acompañe, Dios mediante, a sentenciar finis coronat opus, o, como decía mi padre, *hasitako lana bukatzena*.

Traducción de Iñaki Friera



ANTROPOFOBIA


Siento que soy antropofóbico. No me gusta la carne humana. La he probado, por supuesto, y no me gusta. Ni su sabor, ni su textura. Nada. Ahora está de moda la antropofagia, y casi es obligado que te guste la carne humana, que te parezca la carne más exquisita. La humanidad se mueve al ritmo de las modas, es víctima de mensajes manipuladores. Primero fue la carne de vaca; luego, el pescado azul; después, la dieta vegetariana, el naturismo, los alimentos ecológicos. Ahora, por tierra, mar y aire, ha llegado la antropofagia: nada se equipara a la carne humana en proteínas, vitaminas y calorías. Además, es signo de elegancia, señal de alto nivel, de modernidad. Ahora los prejuicios éticos se leen de otra manera: es inmoral no comerte la carne de un familiar, de un amigo o, incluso, de un enemigo, porque ellos sí lo harían por ti. Pero yo no soporto el espectáculo: al encargado del Departamento de Embalaje, que falleció ayer mismo de un infarto, se lo comieron mis compañeros de trabajo, como si de buitres se tratara, empapados los buzos de sangre, vorazmente, las piernas y los muslos, los tiernos y ricos sesos, chupando una a una las falanges, pobre difunto, un hombretón que hasta ayer nos regalaba caramelos de malvavisco y ya no es nada, un simple fémur, un cúbito y radio desnudos, una simple calavera, todo es aprovechable en el ser humano, como en el cerdo, eso se decía antes, y cómo guardaban la sangre del pobre para hacer chorizos y morcillas, cómo han devorado su cuerpo en un amén Jesús en su honor,

venga chicos, que no quede ni resto del pobre Germán, seamos generosos y desprendidos tanto en su vida como en su muerte.

Ayer Guzmán, y anteayer un primo mío que murió ahogado en la playa; y hace tres días un harapiento anciano atropellado por un camión; o las peleas que hay en las colas de las carnicerías por conseguir un trozo de cadera, sesos o criadillas; y, sobre todo, los cuerpos jóvenes, la más fresca y tierna de las carnes, o los cuerpecitos de los recién nacidos, preparados luego en la humeante brasa de las barbacoas en los atardeceres de verano, como si de un guiso divino se tratara, el más delicioso delicatessen jamás conocido.

Traducción de Iñaki Friera

Onze nouvelles de Karlos Linazasoro



Traduction : Nahia Zubeldia



DE LA RÉTROACTIVITÉ

L'un de mes amis est parvenu à l'immortalité. Cette conquête a représenté le seul, l'unique objectif de sa vie. Je ne l'envie pas. Grand bien lui fasse. Quant à moi, j'ai pris le chemin radicalement opposé : je voulais être rétroactif et, après bien de travail et de peine, je suis parvenu à la rétroactivité. J'écris désormais mon propre passé, j'éclabousse de bonheurs indicibles chacun des jours de mon enfance et de mon adolescence, à mes morts je redonne vie, je m'orne de la plus belle des professions... Cette faculté (ce don ?) se prolonge jusqu'au jour d'hier, elle est veille éternelle, le présent constitue sa frontière ou son exil, et bien qu'intouchables, le souvenir et le parfum d'hier sont si proches... Mon ami me dit, sournoisement, qu'un jour je mourrai moi aussi, et moi je lui réponds, avec une pointe de malice, qu'il n'existe rien de tel en ce monde que de mourir dans le bonheur absolu, et je lui demande ce qu'il compte faire, lui, lorsque sa vie lui sera devenue insupportable, insensée et misérable. Oui, ce que diable il compte faire.



LA SIGNATURE

Le vieux berger ne savait ni lire ni écrire. Quand le notaire lui remit la plume, pour qu'il signe le document, il regarda par la fenêtre un court instant. Puis, de deux doigts, très délicatement, trayant la plume, il dessina un merveilleux troupeau.



A L'HÔPITAL : MOTS CROISÉS

En attendant un décès, en attendant une naissance, je fais des mots croisés. Ils apaisent mon anxiété, défont les lourdes chaînes de ma tête. Je m'assois près de la salle d'opération, sur un petit siège d'osier, et je regarde le plafond, à la recherche du mot perdu. Couleur, dix lettres. Ils doivent remplacer le cœur de l'enfant, abîmé à l'école, dans le bois de la cour de récré. Andrinople, opalescent, incarnadin. Je regarde le plafond, oui, mais c'est aux artères de l'enfant que je pense, à ses systoles-diastoles abattues rongées aux mites. Je suis le roi des mots croisés. Iridescent, bleuissure, rubicondes. Bientôt quatre heures. Les lettres se reposent à leurs places, d'elles-mêmes, il ne reste plus que quelques cases à remplir. Sur ce, je sens au-dedans des bruits de pas, la proximité de mots tièdes. Ils arrivent. Ils ont terminé. Colorisées, verdoyants, lactescents. Je ne trouve pas le mot, je n'ai jamais trouvé aucun mot, mais j'entends en revanche le nouveau cœur, palpitant tumultueusement, à en faire exploser la salle d'opération, avec l'entrain d'un cheval sauvage. Et je connais désormais la couleur du nouveau cœur, la couleur aux dix lettres, aux mille lettres, aux mille vies.



A L'HÔPITAL : LES PERPERDUS

A présent je connais par cœur tous les couloirs, les étages, les pièces et le reste de l'hôpital. Le moindre recoin. C'est pourquoi, si je me perds, je ne me perds pas définitivement, en aucun cas. Pour se perdre définitivement, il faut connaître les parages parfaitement, et malgré cela on a du mal se perdre définitivement. Je connais pour ma part des patients qui se sont perdus définitivement, deux ou trois, peut-être même un quatrième, entre les murs de l'hôpital. On ne les a plus jamais retrouvés, malgré des recherches répétées. Mais moi je sais où ils se sont pervertis, car ils ne se sont ni perdus ni ancrés ni cachés nulle part, ils se sont *pervertis*. C'est-à-dire ? C'est-à-dire qu'ils ont obtenu une certaine invisibilité, un statut qui ne peut s'obtenir qu'à l'hôpital, à mi-chemin entre la vie et la mort. C'est pourquoi, quand je vais ou marche seul, marmonnant avec moi-même, dans les longs couloirs stériles de l'hôpital, l'on peut penser, l'on peut rêver que je discute avec les pervertis, de tout et de rien, et non avec moi-même, dans un monologue fou inquiétant.



XÉNOPARANOÏA

Je souffre de xénoparanoïa, de celle de l'autre. Comment cela se traduit-il ? J'ai toujours quelqu'un devant moi. Et il me suit. Il me suit par devant, et alors la paranoïa n'est pas la mienne, mais celle de l'autre. La xénoparanoïa n'est pas, du moins dans une certaine mesure, inquiétante, elle ne fait pas peur : l'on a toujours l'ennemi sous les yeux. De ce côté-là, il n'y a pas de surprise, l'initiative m'appartient toujours. Mais on ne sait jamais. De plus, même s'il se tient à une distance prudente, l'intimité, l'équilibre intérieur disparaît. Comme il est devant, c'est moi qui le suis, et j'ai tout intérêt à me taire. Les gens ne comprennent pas pourquoi je m'indispose, pourquoi tout à coup je pars dans des insultes cruelles injustifiées. Celui que l'on a devant ne marche pas avec soi ; tout au plus, ce serait l'inverse. Et j'ai essayé de l'attraper, et c'est alors l'autre qui est devenu paranoïaque. Je ne suis, en tous les cas, jamais parvenu à l'atteindre : nos vies glissent sur la même ligne, à une certaine distance insurmontable et fatidique.



OÙ EST-IL

Et ses mains dans mes cheveux étaient fusées ou neige, luges en avant, qui glissaient dans les odeurs d'eau de Cologne vers le quai de mes yeux, pour prendre un repos libertin, un baiser valant jusqu'à plus tard. Les mains de maman, dis-je, mer et ondulation chaque matin, effaçant les vestiges de rosée, les épines de nuages de l'oreiller. Et quel voyage dansaient-elles dans la petite veille de mes tétées, de quelle récréation si bleue et si belle avaient-elles besoin, où allions-nous tuer tous ces moments, les dormants les plus fidèles. Où sont les sourires de ces mains ouvrant la cage de mes cheveux, les oiseaux s'envolant, et les rubans les champs-de-blé les bateaux-de-pirates les caresses les bouleaux les rossignols, tout cela qui se perdit avec ma raison, où est-il.



CERTAINS MATINS

Certains matins je suis un enjambement, moi tout entier, une pince, une tenaille, une agrafeuse qui attrape je-ne-sais-quoi entre les jambes. Je vois le quartier, et je m'accroche à son dos par la cuisse, sur le côté ; je rencontre un chêne élancé, et j'agrippe son tronc avec l'habileté d'un singe ; je pose les yeux sur quelque chose de vertical (réverbère, boîte aux lettres, être humain ou agent de police, panneau de signalisation), et, inéluctablement, à contrecœur (on me comprendra), je l'attrape avec les jambes, d'une force élégante mais l'air méchant, jusqu'à lui faire mal l'air méchant et fortement, et un jour à l'évidence je connaîtrai une déception du fait de ma cruelle, incontrôlable propension.



L'HOMME-FILTRE

Je suis un homme-filtre. Je trouve de l'or dans les pensées, les mots, les idées, dans tout ce qui existe. J'ôte la pollution à l'air, le virus à la maladie, le mensonge à la vérité. Tout ce qui pénètre dans mes pores (un son, un sourire perdu, le pollen des yeux) ressort propre, pur et vierge, innocent. Les déchets et la saleté, le mensonge et peut-être la haine, la tromperie et la tyrannie, je les évacue par les reins et les poumons, avec le dioxyde de carbone. A chaque respiration je nettoie une infime partie du monde, pas plus de quelques rares molécules sans doute, mais autour de moi tout est forêt pure, poésie et paradis, harmonie originelle. Je ne ressens même plus de fatigue lors du processus de filtrage, je le fais tout naturellement, sans angoisse ni étouffement ni peur, tout en respirant. Et autour de moi l'on vit heureux, parce que l'on sent une certaine paix pure, vraie, antérieure au paradis que nous avons perdu, bâni de lumière Divine, d'une joie indicible.




LA FLÈCHE LA PLUS CRUELLE DE L'OFFENSE

Je fais tout de biais : marcher, parler, aimer, dormir, vivre. Ces choses bien sûr ne se décident pas par nous-mêmes, tout comme nous ne décidons pas de la couleur de nos yeux. C'est une sorte d'impossibilité à m'adapter au monde qui est à l'origine de tout cela, je le sais, les remparts de l'air me provoquaient une angoisse cosmique. Je ne peux pas vivre face à face, tête à tête, en plongée ou en contre-plongée : ces états me sont interdits. Je regarde de biais mon ami le plus cher, et il ressemble à un ennemi ; c'est de biais que je parle, et on me devine des airs de colère ; je parcours les rues de biais, et on trouve mon attitude insultante ; je baise de biais, et on ne perçoit pas d'amour dans ma fièvre amoureuse. Mais, si je regarde de biais, moi je vois le monde de face et tout entier, non pas de côté ou de travers, et je connais la flèche la plus cruelle de l'offense.



RIP

J'ai les cendres de papa entre les mains. Une vilaine urne. Et je ne sais pas quoi faire des cendres de papa. Je voudrais les envoyer en l'air, mais le vent dort ; je voudrais les répandre sur le sol, mais je m'aperçois que je suis pieds nus. Je me trouve dans un petit bois rouge, et je vois des coussins dans les chênes, et un coucou m'a fienté dessus, et j'entends même la mer de si loin. J'ai écrit un poème à lire en ce moment touchant, j'ai copié une strophe en huit à un vieux poète populaire, Ataño, Polipaso, même si moi j'ai toujours aimé Machado, Antonio Machado, et en espagnol. Mais en espagnol. Or c'est en basque que papa disait toujours qu'il repose en paix, et jusqu'au grand jour, ou toutes mes condoléances, et si Dieu le veut –et pas si tout va bien–. Et il avait appris à l'usine à dire finis coronat opus, la mort couronne l'œuvre, le voyage s'achève dans la mort, et la terre nous rendra tous égaux. Enfin, la terre. Le patron et nous, tous. Et c'est cela même que papa écrivit en grandes lettres vertes sur le mur solide de l'encolleuse : Finis Coronat Opus. Je me suis assis sur un tronc. Il flotte une odeur de cire, un îlot de lumière tissé par les poissons abyssaux. Je regarde papa, et papa me cache la forêt. S'il y avait un soupçon de vent, au moins. Ou si papa ne me regardait pas ainsi, aussi accablé. Mais c'est tout vu, aujourd'hui ce n'est pas le jour. Je viendrai une autre fois, un autre jour, quand le temps voudra bien coopérer, peut-être, si Dieu le veut, faire finis coronat opus, ou, comme disait papa, terminer le travail commencé.




ANTHROPOPHOBIE

Je me tiens pour anthropophage. Je n'aime pas la chair humaine. J'ai goûté, bien sûr, et je n'aime pas. Ni le goût ni la texture ni rien. Aujourd'hui l'anthropophagie est à la mode et il est quasiment obligatoire d'aimer la viande humaine, de trouver que c'est la viande la plus exquise qui soit. L'humanité est mue par l'aiguillon des modes, soumise à ses messages manipulateurs. D'abord, ce fut la viande bovine ; ensuite, le poisson bleu ; puis, le régime végétarien, le naturisme, la nourriture biologique. Aujourd'hui, l'anthropophagie est dans l'air, sur la terre comme au ciel : rien ne vaut la viande humaine, ses protéines, ses vitamines ou ses calories. En outre, elle est signe de finesse, synonyme d'excellence et de modernité. On prend aujourd'hui les préjugés éthiques à contre-sens : il est immoral de ne pas manger la chair de nos parents, amis ou ennemis, alors que c'est *précisément* ce qu'ils feraient pour nous. Mais moi je ne peux pas supporter le spectacle : le responsable de la Section Emballage, qui est mort hier d'une crise cardiaque, mes collègues l'ont mangé tout entier, comme des vautours, les bleus de travail imbibés de sang, avidement, ses jambes et ses cuisses, sa moelle tendre et savoureuse, pour l'échant meticuleusement les phalanges, le pauvre cadavre, l'homme imposant qui jusqu'à hier nous offrait des berlingots n'est désormais plus rien, fémur décharné, cubitus et radius décharnés, crâne dépouillé, tout est bon dans l'humain, comme dans le cochon, c'est ce qu'ils disaient, et comment

ils gardaient le sang du pauvre homme pour faire des saucisses et des boudins, comment ils ont avalé le corps en un tournemain en hommage même du cadavre, allez, les gars, qu'il ne reste pas une trace du pauvre Germán, soyons généreux et miséricordieux envers sa vie et envers sa mort.

Hier Guzmán, et avant-hier l'un de mes cousins, mort noyé à la plage ; et il y a trois jours, un pauvre vieillard renversé par un camion ; ou les bagarres qu'ils se provoquent pour un bout de hanche ou la cervelle ou les testicules ; et, surtout, les cadavres des petits jeunes, la viande la plus fraîche et la plus tendre, ou les petits corps des nouveaux nés, qu'ils grillent dans les barbecues enfumés, chez eux, les soirs fauves d'été, comme s'il s'agissait d'un mets divin, du plus fabuleux des delicatessen.

Eleven Short Stories by Karlos Linazasoro



Translated by Sarah Turtle



ON RETROACTIVITY

I have a friend who has achieved immortality. Achieving it has been his one and only goal in life. I don't envy him. Good for him. I've done the complete opposite: I wanted to be retroactive, and after much effort and fatigue, retroactivity is what I've achieved. Now I'm writing my own past, I'm sprinkling all the days of my childhood and youth with indescribable happiness, I'm resurrecting my dead, I'm giving myself the most delightful of professions... The power (gift?) lasts until yesterday, it's always the day before, the present is a frontier or exile, and yesterday's memory and fragrance, despite being untouchable, are still very close. My friend tells me maliciously that I, too, will die one day, and I tell him, with a touch of wickedness, that there's nothing better in the world than to die in complete happiness, and I ask him what he intends to do when his life becomes unbearable, meaningless and loathsome. What on earth is he going to do then?



THE SIGNATURE

The old shepherd did not know how to read or write. When the notary handed him a pen for him to sign the document, he gazed out of the window for a brief instant. Then, very gently, he milked the pen with two fingers and drew a wonderful flock of sheep.



AT THE HOSPITAL: CROSSWORDS

Whenever I'm waiting for someone to die or for someone to be born I do crosswords. They calm me down, and undo the tight knots inside my head. I sit down next to the operating theatre on a little wickerwork chair and stare at the ceiling in search of a lost word. A colour, nine letters. They've got to change the child's heart, it got damaged while he was at school in the playground wood. Turquoise, tangerine, harlequin. I gaze at the ceiling, yet I'm thinking about the child's arteries weakened by woodworm, their weary systole-diastole. I am the king of the crossword. Byzantium, vermillion, persimmon. It's nearly four hours. The letters settle down in their places on their own, only a few gaps left to be filled now. All of a sudden I hear footsteps inside, the proximity of some warm words. They're coming. They've finished. Raspberry, goldenrod, malachite. I can't guess the word, I've never guessed a single word correctly, but I can hear the new heart feverishly jumping with the joy of a wild horse, as if wanting to burst out of the operating theatre. And now I know the nine-letter word which is the colour of the new heart with nine lives.



AT THE HOSPITAL: MISSINGED PERSONS

By now I know the hospital's corridors, floors, rooms and everything with my eyes closed. Every single corner. That's why when I decide to go missing, there's no way I'll be missing for ever. If you want to remain missing for ever, you have to know every spot very well, and even so it's quite a job going missing for ever. I know patients who went missing for ever, two or three, maybe a fourth one, too, within the hospital's walls. They were never found again, even though people looked for them everywhere. But I know where they went missinged, because they didn't just go missing or settle down somewhere or hide somewhere, they went *missinged*. What's that? It's achieving a kind of invisibility, a status that can only be achieved in a hospital, and it's halfway between life and death. That's why whenever I go around muttering to myself or as I wander along the hospital's long, sterile corridors, someone might think, might dream, that I'm talking to or chatting to the missinged persons, and not engaged in an alarming, demented monologue with myself.



SOMEONE ELSE'S PARANOIA

I suffer from paranoia, other people's paranoia. What's it like? Well, I always have someone ahead of me. And they follow me. They follow me from in front, so the paranoia isn't mine but someone else's. To a certain extent someone else's paranoia is nothing to get worked up about, it doesn't make you afraid: you always have the enemy in your sights. So in that respect there are no surprises, because I always hold the initiative. But you never know. What is more, even if they maintain a safe distance from you, privacy, internal balance, is lost. As I have them in front of me, I am the pursuer, so I'd better keep quiet. People can't understand why I get ruffled, why all of a sudden I start hurling terrible insults without any apparent reason. The person you have in front of you isn't going with you; in actual fact, it will be the other way round. And I have tried to catch them, so it's the other person who is paranoid. Anyway, I've never managed to catch them: our lives slip along the same track, at a certain fateful, constant distance.



WHERE IS IT?

And her hands in my hair were rockets or snow, a sleigh moving forwards, which slid in a smell of cologne to the port of my eyes, to take a ravishing pause, a kiss until later. Mother's hands, I say, curls and sea each morning, removing the traces of dew, the cloudy thorns on my pillow. And what a journey they danced as they lovingly watched over my portion of milk, what entertainment they needed so blue and so beautiful, where did all those moments go to die, the sleeping faithful. Where are the smiles of those hands as they open the cage of my hair, letting the birds fly away, and the ribbons the cornfields the pirate ships the caresses the birches the nightingales, everything that was lost with my coming of age, where is it.



SOME MORNINGS

Some mornings I'm an enjambment, I am a peg, pincers, a stapler and I grab things firmly between my legs. I spot my neighbourhood and I grab it by the shoulder, my thigh next to its ribs; I come across a massive oak tree and with the skill of a monkey I get hold of its trunk; I pick out something standing upright (a lamp post, post box, human being or municipal policeman, road sign), and I am compelled, against my wishes, (I'm sure you'll understand), to grab it between my legs, with agility, power, but with wickedness, until I cause the person pain, in a powerful, wicked way, and one day, of course, something is also bound to befall me because of my unkind, uncontrollable habit.



FILTER MAN

I'm a filter man. I find gold in thoughts, words, ideas, in everything that exists. I take the pollution out of the air, the virus out of the disease, the lie out of the truth. Everything I absorb through my pores (a sound, a lost smile, the pollen in someone's eyes) emerges clean, pure and virgin, innocent. I expel waste and dirt, lies and maybe loathing, tricks and tyranny through my kidneys and lungs along with the carbon dioxide. With each breath I clean a minute part of the world, only a few molecules perhaps, but around me all is a spotless forest, poetry and paradise, the harmony of the beginning. I don't get tired any more in the filtering process, I do it automatically; no worries, no suffocation, no fuss when I breathe. And people live happily beside me, because they notice such clean, genuine peace, the one that existed before paradise was lost, baptised with divine light, one of such unspeakable joy.




THE CRUDEST ARROW OF THE INSULT

I do everything sideways: walking, speaking, loving, sleeping, living. Of course, we don't choose these things, just as we don't choose the colour of our eyes. At the bottom of all this is a kind of not fitting in with the world that I know, cosmic suffocation that walls of air have produced in me. I cannot live side by side, opposite, face down or face up: these characteristics are forbidden in my case. I observe my best friend sideways and he looks like an enemy; I speak from one side and traces of anger can be found in me; I walk the streets sideways, and people find my behaviour insulting; I fuck sideways and no love is visible in my passion. But although I look sideways, I can see the world face to face and in its fullness, not in profile or from one side, and I know what insult's crudest arrow is.



RIP

I'm holding father's ashes. An ugly urn. And I don't know what to do with father's ashes. I'd like to toss them up in the air, but the wind is asleep; I'd like to scatter them on the ground but I realise I have nothing on my feet. I'm in a small, red wood and I can see pillows in the oak trees, and a cuckoo has shat on me, and I can even hear the sea, so far away. I've written a poem to read during this moving moment, I've copied an eight-lined verse from an old Basque verse maker, from Ataño, Polipaso, even though I've always liked Machado, Antonio Machado, and in Spanish. But in Spanish. And father would always say in Basque rest in peace, and until the great day, or I am your friend in grief, and God willing, but not all being well. And it was in the factory that he learnt to say finis coronat opus, death finishes the work, the journey ends in death, and the earth will make us all equal. In the end, earth to earth. The factory owner and us, everyone. And that is exactly what my father wrote in big green letters on the side of the gumming machine. FINIS CORONAT OPUS. I sit down on a tree trunk. I can smell candle wax, light's reflection woven by abyssal fish. I look at father and I can't see the wood for my father. If only there were the slightest puff of wind. Or if only father would not look at me like that, so defeated. But it is clear that today is not the day. I'll come another day, another time, weather willing, God willing, to perform finis coronat opus, or, as father used to say, to finish the job you've begun.



ANTHROPOPHOBIA

I regard myself as an anthropophobe. I don't like human flesh. I've tried it of course, but I don't like it. Neither the taste, nor the texture or anything else. Now anthropophagy is fashionable and it is almost *de rigueur* to like human flesh, to think that it is the most delicious meat possible. Humanity moves under the dictates of fashion, and is dominated by manipulating messages. First of all it was beef; then oily fish; then the vegetarian diet, naturism, organic food. Now anthropophagy has arrived by land, sea and air: nothing has the proteins, vitamins or calories that human flesh has. Moreover, it is a sign of finesse, a cutting-edge symbol, and an indication of modernity. Ethical prejudices are interpreted the other way round now: it is immoral not to consume the flesh of your relatives, friends or enemies, when that is *precisely* what they would do for you. But I can't bear the spectacle: the Head of the Packaging Department, the one who died of a heart attack yesterday, was eaten up by my colleagues, just like they were vultures, their working clothes drenched in blood, they feasted on him, legs and thighs, the sweet, soft marrow, and thoroughly sucked the bones of his hands and feet, the poor corpse, there is nothing left of that big guy who until yesterday was handing out humbugs to us, just a femur, just an ulna and a radius, just a skull, you can make use of the whole human being, as you can a pig, that's what they said, and how they kept the poor creature's blood to make sausages and

black pudding, how they devour the body even before you know it, in honour of the body itself, anyway, lads, let no traces of poor Herman remain, let us be generous and kind with respect to his life and his death.

Yesterday it was Herman, and the day before yesterday a cousin of mine, the one who drowned at sea; and three days ago, a ragged old man who was run over by a lorry; and then you have the arguments that go on in the queues at the butchers' shops for a bit of hip bone, or brain or testicles; and particularly the bodies of the younger ones, the freshest, most tender meat, or the little bodies of new-born babes, grilled on smoky home barbecues, on red summer evenings, as if it were the food of the gods, the most wonderful gourmet food ever.

KARLOS LINAZASOROREN HAMAIIKA KONTU

IDAZLEA ITZULTZAILEEN LANTEGIAN - 2009

GASTEIZEN, 2009KO IRAILAREN 22TIK 24RA

Karlos Linazasorok eta Iruitzulaliek Diadenez liburuko hamarka kontakizun izango ditute mintzagai, bost berrialdean (hiru gaztelaniaz, eta bana ingelesetako frontsesez).

Itzulpenak:

- Karlos Linazasoro (gaztelania)
- Iratxe Friera (gaztelania)
- Gerardo Markuleta (gaztelania)
- Sarah Turle (Ingelesa)
- Nahia Zubeldia (frontsesa)

JENDAURREKO EKITALDIA

2009ko irailaren 24an, oratseko 19:00etan
Ignacio Aldecoa Kultura Etxea (Gasteiz)

Mintegiaren azken egunean, parte hartzalleek esperientziaren berri emango dute mahai-inguru batean. Ondoren, idazlearen zenbait testu bost berrialdean entzuteko parada izango du.



Hamaika kontu, hiru itzulbide

MANU LÓPEZ GASENI

Arestian esan bezala, 2009ko lantegia bi saiotan banatu zen, eta niri egokitutako zitzaidan lehena gidatzea, euskaratik gaztelaniarako itzulpenen ingurukoa, alegia. Hiru itzulpen erkatu eta eztabaidatu ziren saio horretan: Iñaki Frierarena, Gerardo Markuletarena eta Karlos Linazasorok berak egindako autoitzulpena.

Saioaren hasieran, Karlos Linazasorok hitz batzuk esan zituen bere literatur jarduerari buruz; eta horren ondoren testuak aztertzeari eta eztabaidatzeari ekin genion.

Aurkezpenean, Linazasorok aitortu zuen idaztea autismo eta lotsaren arteko izaerari oreka jartzeko komunikazio bide gisa era-biltzen duela, eta bizitzeko modu gisa hartzen duela literatura. Aipu bat erabiliz, esan zuen bi pertsona mota daudela munduan: esperantza galdu dutenak eta esperantza egunero galtzen dutenak; Linazasorok bigarren taldean kokatu zuen bere burua. Gehien estimatzen dituen idazleen artean, Kafka aipatu zuen bereziki, eta haren ondoan “hiru B” direlakoak: Borges, Beckett eta Bernhard. Borges, Rulfo eta Cortázar bezalako idazle hegoamerikarrak oso gogoko izanda ere, Carver eta enparauen idaztankera ere oso erakargarria egiten zaiola argitu zuen. Bere obrari buruz, hil aurretik “Dekalogia” bat utzi nahi lukeela esan zuen, eta hamar obra horien arteko bat *Diotenez* bera dela. Kultu-idazlea dela dioten arren, benetan idazle marginala dela uste du; izan ere, haur literatura bazter utzita, 127 irakurle dituela esan zuen: 35 poesian, 17 aforismoetan eta 85

ipuinetan. Gai gogokoena, berriz, denbora, maitasuna, heriotza eta natura ditu; eta umorez zipriztindutako melankolia izaten dela gaiok plazaratzeko bidea. Landutako genero horiek (poesia, ipuina eta aforismoa) ditu maiteenak; nobela generoa, aldiz, arbuiatu egin zuen, genero akomodatua eta burgesa delakoan.

Aurkezpenaren ondoren, gaztelaniazko hiru bertsioak erkatzen hasi ginen, eta honako hauek izan ziren eztabaidegai nagusiak:

Lexiko mailako zailtasunak. Idazleak bere beharretarako hitzak asmatzeko joera erakusten zuen eta, horietako asko itzultzeko zalantzak eta proposamen desberdinak sortu ziren: atzerae-raginezkotasun, galdutu, auzoparanoia, iragazi-gizona, eta abar. Horri gaineratu behar zaio egileak erabilitako lexiko “markatua”, hala nola, “urdin” edo “gorri” izenlagunen erabilera (baso ttiki gorri, udako arrats gorrietan, jolastordu (...) hain urdina), eta baita adiera berezi-berezia zuten bestelako hitzak, “auzo”, kasurako.

Testuarteekotasunak eta tradizioaren oihartzunak. Horrelakoak gaztelaniazko literatura-tradizioan agertzen diren bezala agerrazteko ahaleginak egin ziren. Adibide batzuk izan daitezke “hitz galduaren bila”, “hastapeneko harmonia”, “aitari begiratzen diot, eta aitak ez dit basoa ikusten uzten” eta beste. Beste hainbeste gertatzen zen erlijio-kutsuko hizkerarekin: “goian bego”, “egun handia arte”, “lagun nauzu saminean”, “Jainkoa lagun”, “lurrak berdinduko gaitu”...

Kultura-erreferenteen itzulpena. Lantegi gehienetan agertutako zailtasuna da hau. “Bertsolari”, “zortziko txiki”, “ama”, “aita” eta abar bere horretan itzuli (“repentizador”, “octavilla”, “madre”, “padre”) ala euskal kutsua uztea (“versolari”, “zortziko menor”, “ama”, “aita”, adibidez), horra eztabaidea.

Hitz-jokoak. Bereziki “Erietxean: gurutzegrama” izeneko ipuinean. Horretan, “hamaika” hitzaren bi adierekin jolasten da, eta gurutzegramak behar duen hamaika letrako hitz egokia izateko aukerak botatzen dira, hori guztia amaierako esaldiari begira: “Eta nik orain badakit bihotz berriaren kolore hamaika letraduna, hamaika biziduna”. Nahiko garbi ikusi zen azken esaldi horren

itzulpeneak baldintzatuko zituela beste “hamaika” guztiena ere (“siete vidas” delakoaren bidetik joz gero, esaterako).

Zaitasun bereziko sintagmak. Zenbait sintagma esanahi ilune-koak suertatu ziren, eta soilik idazlearen argibideei esker itxuratu ahal izan ziren. Hori izan zen “buruko lokarri astunak askatzen”, “jolastokiko basoa”, “burukoaren hodei-arantzak” edo “esne-sustaren beila ttikian” direlakoen kasua.

Narratzaileen tonura egokitzeo zaitasunak. Egindako testu hautaketan erregistro aldaketa ugari dago, umorezkoak, lirikoak, surrealistik... Hori dela eta, itzultzaileei zaila gertatzen zitzaien unean uneko narratzailearen tonura egokitzea. Berriz ere “Erie-txean: gurutzegrama” ipuina hizpidera ekarri, zaila zen antzema-tea nolakoa harremana zegoen narratzailearen eta ebakuntza-gelan sartu zuten umearen artean (egileak narratzailea erietxeko jago-lea zela argitu zigun arte). Horrek baldintzatu egiten zuen, neurri batean behintzat, narratzaile horren diskurtsoaren hurbiltasun maila, adibidez “umeari bihotza aldatu behar diote, hondatu egin zaio eskolan zegoela” horretan, “aldatu” eta “hondatu” aditzak mekanikako kontu hotz bat balitz bezala hartu edo adiera “epelagoko” erdal aditzak aukeratzeko orduan. Beste hainbeste gertatu zen “RIP” izeneko ipuinean, esaterako, “kuku batek zirina egin dit” esaldiarekin: narratzailearen izaerari erreparatuta, zalantza zegoen era esplizituagoan ala eufemistikoagoan itzuli behar zen.

Laburbilduz, hiru itzultzaileen artean (egilea barne) nahiko garbi suma zitezkeen testuak aldatzeko estilo desberdinak, literaltasunaren muturretik itzulpen librearenera, eta deigarria izan zen ohartzea askatasun handiena hartzeko “eskubidea” edo lizentzia zuena, Linazasoro alegia, izan zela testuen literaltasunari gehien eutsi ziona (zalantzatan zeuden esanahiak irmo finkatzearekin batera). Beste bi itzultzaileen artean, berriz, Frierak libreago itzul-zeiko joera erakutsi zuen, eta Markuletaek literalago aldatzekoa.

Amaieran, esan gabe doa, denok eskertu genuen EIZIEk halako hartueman emankor aberasgarrian aritzeko aukera eskaini izana.

Bidaia bat Itzultopiara

ITZIAR OTEGI

Itzulpengintzan klasikoa dugu itzultzailaren lana artisau batena-rekin parekatzen duen irudi metaforikoa.

Zizeronek berak oso antzinako garaietan esanda utzi zuen itzultzailak hitzak pisatu behar dituela, eta ez duela hitz kopuru bera eman behar, pisu bera baizik.

Mende batzuk geroago, Larbaudek itzultzailaren balantza hartu zuen irudi: itzulpen oro, zioen, hitzak pisatze bat da, jatorri-eta xede-hizkuntzako hitzak testu-balantzaren bi aldeetan jartze bat. Eta bi platertxoen artean oreka erdiesten deneko instant horren etengabeko xerkan ibiltzen dela itzultzalea.

Itzulpenaren teorian oreka instant horri baliokidetza esaten zaio. Ordea, baliokidetza lortzeko platertxoetan zer jarri behar den, teorialariak ez dira ados jartzen.

Nidaren ustez efektuak dira pisatu, orekatu behar direnak, eta hori esanik baliokidetza dinamikoaren ideia sortu zuen. Hala, itzulpen prozesuaren oinarrian dagoen komunikazio ekintzaren eskemako hirugarren elementuan jarri zuen indarra: mezuaren hartzalea den irakurlearen gain. Nidarentzat, baliokidetza lortuko litzateke mezu-hartzaleek funtsean eragin bera jasotzen dutenean, mezu jatorrizko hizkuntzan ala xede hizkuntzan jaso. Hori erdies-teko, itzulpen-prozesuak bi hizkuntzen eta kulturen arteko arraka-

lak gainditu behar ditu, eta itzultzalearen esku legoke arrakalak gainditzeko biderik zuzenenak hautatzea.

Aurrekoaren ildotik, irudi bat sortu genuen irailaren 23ko gure lantegian: gure artean eserita jarri genuen artisau saiatu bat, zeinak erreberentzia handiz esku artean hartuko baitzuen Jatorrizko Obra. Esku trebe ikasiz hantzatuko zuen Obra, haren pisua neurtzeko, eta kontu handiz aztertuko zituen haren forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal oro, agerian jarritakoak eta ezkutuan utzitakoak, artelan hura den bezalakoa egiten duen ezaugarri oro atzeman eta ulertu nahian. Behin bererizgarri guztien inventarioa eginik, hor hasiko da, beste material arras desberdin bat eskuetan hartuta, antzeko forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal sortzeko lanean. Beste material honetaz duen ezagutza sakona lagun, Obraren ezaugarriak bir-sortzen hasiko da, jakinik jatorrizkoaren sakongune edo irtengune guztiak ez direla itsu-itsuan erreproduzitu behar, material honek ez bailitzke beharbada guztiak onartuko. Pisutsuegia litzateke emaitza, edo arinegia, edo distorsionatua. Badaki materialak oso-berea-egitekoak izaten direla, eta zenbaitetan —artisauak bihotz-minez ikasi eta onartu behar izan du— ezinezkoa izaten dela material baten ezaugarri jakin bat beste batean lortzea, eta une lazgarri horietan osotasunaren pisua gorde- tzea izaten dela garrantzitsuena, eta han goian jarri ezin izan duen koxka horren pisua beheraxeago eranstea badaukala, materialak onartuko dion modu batean. Eta horrela jardunez, egonarri infinitoaz, Obra bir-sortzen du, ez derrigorrez forma, kolore, irudi, usain, ehundura, soinu eta itzal berberekin —banaka hartuta—, baina halako moldez non Obra bir-sortuak ikuslearen begietan eragingo duen proiekzioa Jatorrizko Obrak eragingo lukeenaren oso antzekoa izango baita.

Bai. Badakigu. Itzultopia. Bainan irudi horri heldu genion, bidaia-lagun gisa, egun hartako lantegian.

Aurrean hartu genituen Karlos Linazasororen hamaika kontu, guretzat obra orijinal amaitua, frantses eta ingeles irakurleak ere

euskal irakurleak gozatzen-nozitzen duen eragin bera hartzeko moduan bir-sortzeko anbizioarekin. Itzultzaleek ekarriak zituzten euren ordain-proposamen landuak, eta jatorrizkoak eta bi itzulpenak esku artean hartuta, lanari ekin genion.

Mikroipuin bakoitzaren hasieran, Autore Jaunari gonbita egi-ten genion azalpen bat eman zezan, sarreratxo bat, istorio bakoitzaren intentzioari buruz, sortze-prozesuari buruz, edo berezitasunen bati buruz. Itzultzaleek aurretik egindako lanarekin, autoreak emandako informazio prezziaturekin, eta besteok botatako globo zundak baliatuz, saiatu ginen ipuin bakoitza den osotasunaren pisua atzematen, eta berau osatzen duten efektuak hautematen, neurten, Karlosenak batean eta Sarah Turtle eta Nahia Zubeldia-renak bestean, efektuok balantzaren bi platertxoetan jartzen. Eta guztiion artean, auzo-lanean jardunez, erabakitzuen genuen lortzen ote zen oreka, edo hurbileko egoera bat, behintzat.

Zenbait adibide jarriko ditut:

“Erietxearen: gurutzegrama” ipuinean, jatorrizkoan narrazioa euskeraz garatzen da, baina pertsonaiak gaztelaniaz egiten du gurutzegrama, eta narrazioan tartekatuta agertzen dira hamaika letrako kolore izenak (*Aborrachado, opalescente, encardinado...*). Hamaika letrako kolore izen horiek azken esaldiarekin lotzen dire-nean ipuinak bere esanahi eta efektu osoa hartzen, lortzen ditu: *Eta nik orain badakit bihotz berriaren kolore hamaika letraduna, hamaika biziduna*. Batetik, beraz, euskara eta gaztelania, sozio-linguistikoki auzo-hizkuntzak, biak batera ipuin batean. Bestetik, “hamaika”, euskaraz, ugaritasunaren ideia. Nola itzuli hori ingelesera eta frantsesera? Ba ote dago efektu horiek erdaraz lortzerik, hain modu soil eta zuzenean?

Hasierako proposamenean, Sarah Turtlek erabaki zuen ezin zituela kolore izenak gaztelaniaz utzi. Gurutzegramak gaztelaniaz egingo lituzkeen ingeles hiztun bat, ez da inondik ere jatorrizkoak proposatzen duena bezain ohiko eta arrunt, “normal” (eta gainera,

ba al zenekiten? Inglaterran gurutzegramak desberdinak omen dira...!). Ingelesez, ordea, nekez aurki daitezke hamaika letrako kolore izenak, eta Sarahk zazpi letrako bihurtu zituen (*Saffron, carmine, scarlet...*). Zazpik ba al du, ordea, ugaritasunaren ideia hori, ingeletez? Beharbada bai, pentsatu genuen batzuek; adibidez, katuek zazpi bizitza dituztela esaten da, gizakien aldean bizitza ugari dituztela adierazteko. Baino ingeletez katuek bederatzi bizitza dituzte, aizue, ez zazpi! Eta hona Sarahren azken soluzioa: bederatzi letrako koloreak aurkitu zituen (*Raspberry, goldenrod, malachite...*), eta azken esaldia, berriz, honakoa bihurtu zen: *And now I know the nine-letter word which is the colour of the new heart with nine lives.*

Nahia Zubeldiak, berriz, frantsesaren materiala hartuta, hasieran frantsesa eta gaztelania ere nolabait auzo-hizkuntz badirela eta kolore izenak gaztelaniaz utzita egin zuen proba. Azken esaldia, berriz, honakoa: *Et je connais désormais la couleur aux mille lettres, aux mille vies.* Ezin etsi, ordea, eta azkenean beste bide honeitatik jo zuen, bere iritziz jatorrizkoaren efektuekiko hurbilagokoa: hamar letrako kolore izenak sortu (*Andrinople, opalescent, incarnadin...*), eta azken esaldian trantsizio-esaldi bat sartu, eta honela utzi: *Et je connais désormais la couleur du nouveau cœur, la couleur aux dix lettres, aux mille lettres, aux mille vies.*

Beste adibide bat: “Antropofobia” izeneko ipuinean, esaldi batean malbabisko goxokiak agertzen dira: *Enbalaje Saileko ardu-raduna, (...) atzo arte malbabisko goxokiak oparitzen zizkigun gizon puska (...).* Hasierako bertsioetan *boiled sweets* (ingeletez) eta *guimauves* (frantsesez) ziren. Gero, ordea, Autore Jaunak azaldu zigun zergatik ziren malbabisko gozokiak, eta ez beste edozein gozoki: haurtzaroko gozokiak omen, garai hartan oso ohikoak, eta egun, berriz, xaharrek soilik erosten dituztenak, umeei oparitzeko, gehienetan. Haurtzaroko zaporea, beraz, zahartzaroan haurtzaro galduaren irudi bihurtzen dena, eta haurtzaro-minez atzetik datozen umeei eskaintzen zaiena. Garai batean puri-purikoa, eta egun,

berriz, modaz pasatakoa, zaharkitua. Eta *voilà*: hasierako *boiled sweets* haien *humbugs* bihurtu ziren ingelesezkoan, eta *guimauves* haien, berriz, *berlingots*, frantsesekoa. Hona hemen adaptazio adibide zoriontsu bat, itxura denez, hiru kulturetan aurki baitaiteke antzeko gozoki bat, oso antzeko oihartzunak iratzartzen dituztenak. Adaptazioa, beraz, edo egoeren arteko baliokidetza.

Guztietan izan genuen kezka erritmoa, esaldi trinko landu horien doinu eta musika berezia islatu beharra, hizkuntzaren berezitasuna errespetatuz. Nahiak gertutik jarraitu zien etenei, tarte-kiei, hausturek euskarazkoari ematen zioten erritmo bereziari hurbiletik eutsiz. Sarah, berriz, ingelesak haustura horiek ez dituela hain erraz onartzen, eta esaldiak gutxiago etetearen aldekoa zen. Gure belarri ez-anglofonoen irudipenak hala eskatuta, koma batzuk negoziatu genituen, baita batzuk lortu ere, baina beti —nola ez, bada— azken hitza Sarahri utzita, ingelesa ama hizkuntza duen bakarra baitzen.

Zenbat buelta ez ote genizkion eman “RIP” ipuinari, bertan agertzen den Machado/Otaño-Polipaso oposizioari, heriotzarekin lotutako euskal esapide segida horri (*aitak goian bego esaten zuen, eta egun handira arte...*), eta, horiekin batera, esplizituki adierazi gabe atzean dagoen guztiari (alegia, *euskaraz* esaten zituela, eta Machado *gaztelaniaz* zela). Non geratzen dira oihartzun implizitu horiek denak hitzok ingelesez eta frantsesez jartzean? Eta zer egin? Esapideok euskaraz utzi, eta gainerako guztia ingelesez eta frantsesez jarri? Merezi al du horrek frantses eta ingeles irakurlearen eragingo duen arroztasuna? Ezetz erabaki zen, ez zuela merezi, eta esapideok itzuli eta letra etzanez markatzea izan zen soluzio hobetsia.

Eta zenbat buelta eman ote genizkion hitz eta esapide bakotzaren pisuari: efektu berdina al dute *larrua jo, to fuck eta baiser* esapideek euren irakurleengan? Eta bihotza *hondatu* egin zaiola esatea, eta *aldatu* egin behar diotela, euskara neutroa al da, edo nolabait markatua? Ez al du makineria bizigabe baten efektua sor-

tzen eremu semantiko hori erabiltzeak? Edo, aldiz, markatua litzeteke bihotza *transplantatu* egin behar diotela esatea? Nola itzuli *hondatu* hori frantsesera? *Remplacer le cœur blessé/endommagé/abimé?* Eta inglesera, *they have to change the child's heart, it got damaged...*

Eta horrela jardun genuen ordu luzez, autore gajoa etenik gabeko itaunketa gordin batera jarrita, beharbada *élan créatif* betebetean idatzitako hitz eta esaldien nondik norako zehatzenak ere erauzi nahian. Eta hemen hitz bat leundai, hor beste bat indartu, han, berriz, galduztako zerbaitek konpentsatzen saiatu, nonbait huts egindako ñabardura bat gehitu, paragrafo batean koma bat kendu erritmoa bizitzeko, hurrengoan berriz koma bat jarri esaldia indartzeko... etengabeko doiketan, gure bi platertxoen arteko oreka preziatu hori lortzeko eginahal setatian.

Eta bukaeran, nola saihestu galdera: lortu ote genuen? Geure buruari zer erantzun ez genekiela geratu ginenean, zurtuta, erantzunaren aztarnarik gabe, bihotza hersturak hartuta. Nola erantzun galdera horri? Ba al du erantzunik galdera horrek?

Azkenean, Gerardo Markuleta harako haren hitzak ekarri zituen gogora, eta gure herstura nolabait lasaitu: esaten dute itzulpen perfektua ez dela existitzen, baina haren atzetik ibiltzeak asko laguntzen duela itzulpen on bat lortzen.

Esaldi honen oihartzun gisa beste bat datorkit gogora, utopia helmuga ez baizik eta bide eta akuilu dela dioen hura.

Horratx, beraz, gure Itzultopiaranzko bidaiaaren narrazioa.

Bidaiai honentzat, bidaldi zinez aberasgarria.

Itzultzen ez dakien honek

KARLOS LINAZASORO

Itzultzen erakutsi nahi izan didate, alegia itzulpenak egiten, bart eta herenegun, Gasteizko hondartzetan. Edo nik erakutsi nahi izan diet itzultzaileei nola itzultzen den testuaren hastapenera, sorrerara, leize haurtzarokora. Ipuinetan barneratu gara oinutsik eta aske, eta esaldi bakoitzak eragozten zigun basoa ikusten, zer ezkutatzen den gerundio gaizki erabili baten burukoan. Baino itzultzaileak ezin du etsi bere lanean, aldatu beharrak dauzka hitzak beste hizkuntza baten maitasun eta soinuetara, samurtasunez eta ez oldarka, ego-narri esan ezin halako batez. Autoitzulpena saiatu dut nik ahoko minez, eta itzultzaileek, berriz, auzoitzulpena. Bi bideetatik Errormara iritsi gara guztiok, baina ez Vatikanora. Vatikanoa lizentzi honetan perfekzioa litzateke, kimera urdin hori. Eta ez dugu Vatikanoa jo, jakina, eta ezta beharrik ere. Lagunok ulerrarazi dida-tena da beste hizkuntza batean berdin-berdin maita litekeela edo bizi, jatorrian esaten dena zuzen esaten bada, edo zuzenago ahal bada. Neuretzat izan dira loreak, baina xortatik bana eurentzat dira. To, gorrienak.

(*Diario Vasco* egunkarian argitaratua, 2009ko irailaren 29an)

Uno no sabe traducir

KARLOS LINAZASORO

Han intentado enseñarme la traslación, o sea a hacer traducciones, ayer y anteayer en las playas de Gasteiz. O acaso haya sido yo el que ha intentado enseñar a los traductores cómo trasladarse a los inicios del texto, a su origen, a la sima de la infancia. Nos hemos adentrado descalzos y libres en los cuentos, y cada una de las frases nos impedía ver el bosque, aquello que se oculta al cabo de un gerundio mal traducido. Pero el traductor no puede cejar en su empeño, se siente apremiado a trasladar las palabras a los gustos y los sonidos de otra lengua, con más ternura que impetuosidad, con una paciencia inefable. Yo he ensayado la autotraducción con dolor de verbo, y los traductores, por su parte, la exotraducción. Por los dos caminos hemos llegado todos a Roma, aunque no al Vaticano. El Vaticano, en esta licencia, equivaldría a la perfección, esa quimera azul. Así que no hemos llegado al Vaticano, claro, ni falta que hace. Lo que me han hecho comprender estos compañeros es que en otra lengua se puede amar o vivir exactamente igual, si la palabra original se reproduce de forma apropiada, y si se hace de forma aún más apropiada, mejor. Las flores han sido para mí, pero a cada uno de ellos le corresponde una del ramo. Ahí van, las más rojas de todas.

Traducción de Manu López Gaseni

Moi qui ne sais pas traduire

KARLOS LINAZASORO

On a voulu m'apprendre à transposer, c'est-à-dire, à faire des traductions, hier et avant-hier, sur les plages de Gasteiz. Ou peut-être ai-je voulu apprendre aux traducteurs à transposer le début, la genèse d'un texte, le gouffre de l'enfance. Nous avons pénétré libres et pieds nus dans mes récits, et chaque phrase nous cachait la forêt, les mystères blottis dans l'oreiller d'un gérondif mal employé. Mais, dans sa tâche, le traducteur ne peut renoncer, il doit transposer les mots aux sons et à l'amour d'une autre langue, avec plus de tendresse que de fureur, avec une patience indicible. Je me suis essayé à l'auto-traduction, avec la douleur du verbe, et les traducteurs, eux, à la xéno-traduction. Les deux chemins nous ont tous menés à Rome, mais pas au Vatican. Le Vatican, dans ce domaine, constituerait la perfection, cette chimère bleue. Nous ne sommes donc pas allés au Vatican, naturellement ; ce n'était d'ailleurs pas nécessaire. Ce que mes compagnons m'ont fait comprendre, c'est que l'on peut aimer ou vivre tout autant dans une autre langue, si le mot d'origine est exprimé justement, ou même, si possible, plus justement encore. C'est moi qui ai reçu les fleurs, mais j'en garde un bouquet pour chacun d'eux. Tenez, les plus rouges de toutes.

Traduction de Nahia Zubeldia

One who does not know how to translate

KARLOS LINAZASORO

They wanted to teach me how to translate, in other words, how to do translations, yesterday and the day before on the beaches of Vitoria-Gasteiz. And I wanted to show the translators how to go back to the beginnings, to the origin of the text, to the abyss of childhood. We walked barefoot and freely deep into the stories, and each sentence prevented us from seeing the wood, from seeing what is hidden in the pillow of a badly used gerund. But the translator cannot throw in the towel in his or her work, he or she has to change the words into the love and sounds of another language, gently, not aggressively, and with ineffable patience. I had a stab at self-translation, which resulted in mouth-ache, and the translators, on the other hand, tried their hand at neighbourhood translation. The two roads led us all to Rome, but not to the Vatican. The Vatican in this license would be perfection, the blue chimera. We did not head for the Vatican, of course, and we did not need to either. What my friends made me understand is that it is possible to love or live in just the same way in another language, if what is said in the original is said correctly, or more than correctly if possible. The flowers were for me, but in the bunch there are flowers for each one of them. There you are, the reddest ones.

Translated by Sarah Turtle

